

ENTZUMENA

Jarduerak bost zati ditu:

1. “Miren medikutan” entzungaiari dagokiona.
2. “Antzerki-taldea” entzungaiari dagokiona.
3. “Xaboi naturala” entzungaiari dagokiona.
4. “Elkarrizketak” entzungaiari dagokiona.
5. “Bizkotxo errezeta” entzungaiari dagokiona.

Guztira, 50 minutu izango dituzu bostak egiteko.

ENTZUMENA

1. Miren medikutan

EGITEKOA:

- Entzun “Miren medikutan” elkarrizketa eta erantzun horren inguruko aukera anitzeko bost galderari.

PROZEDURA:

- Hiru minutu izango dituzu galderak eta erantzunak irakurtzeko.
- Bi aldiz entzungo duzu “Miren medikutan” elkarrizketa.
- Amaieran, bost minutu izango dituzu galdera bakoitzari dagokion erantzun zuzena aukeratu eta taulara eramateko.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

Transkripzioa:

HARRERAKOA: Kaixo, egun on!

MIREN: Egun on. Belarriko minez nago, eta medikuak begiratzea nahi dut.

HARRERAKOA: Nor da zure medikua?

MIREN: Ez naiz gogoratzen. Ez naiz askotan etortzen.

HARRERAKOA: Esan zure izen-abizenak, mesedez.

MIREN: Miren Etxezarreta Mendiola.

HARRERAKOA: Etxezarreta Mendiola... Miren, ezta? Hementxe dago. Maite Aldalur da zure medikua, baina gaur ez dauka txanda librerik. Bihar goizeko 10:00etan du hurrengo txanda.

MIREN: Bihar? Mesedez, min handia daukat.

HARRERAKOA: Ea, bada... Zure medikuak ez, baina Olano medikuak tarte txiki bat izango du gaur 11:00etan. Ondo iruditzen zaizu?

MIREN: Bai, orduan gaur 11:00etan etorriko naiz.

HARRERAKOA: Bigarren solairuan dauka kontsulta-gela, 7. gelan.

MIREN: Mila esker!

HARRERAKOA: Ez horregatik!

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

1. Zergatik joan da Miren medikutara?

- A. Hankako mina duelako.
- B. Belauneko mina duelako.
- C. Belarriko mina duelako.

2. Ba al daki Mirenek nor den bere medikua?

- A. Bai, sarritan joaten da eta.
- B. Ez, ez da gogoratzen.
- C. Bai, Olano medikua.

3. Noiz aztertuko du medikuak?

- A. 10:00etan.
- B. 08:00etan.
- C. 11:00etan.

4. Nork eman dio hitzordua?

- A. Erizainak.
- B. Harrerakoak.
- C. Medikua.

5. Lortu al du Mirenek hitzordua?

- A. Ez.
- B. Bai, bere betiko medikuarekin.
- C. Bai, baina beste mediku batekin.

IDATZI ERANTZUNAK

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

ENTZUMENA

2. Antzerki-taldea

Eider antzerki-talde batean hasi da entseatzen. Entsegura bidean Mikelekin egin du topa eta elkarrizketa bat izan dute.

EGITEKOA:

- Entzun “Antzerki-taldea” elkarrizketa eta lotu pertsona bakoitzaren izena bere ezaugarriarekin.

PROZEDURA:

- Hiru minutu izango dituzu gaia eta lotu beharreko datuak irakurtzeko.
- Bi aldiz entzungo duzu “Antzerki-taldea” elkarrizketa.
- Entzuten duzun bitartean lotu izen bakoitza bere ezaugarriarekin.
- Amaieran, bost minutu izango dituzu erantzun zuzenak aukeratu eta taulara eramateko.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

Transkripzioa:

MIKEL: Iepa, Eider! Astelehena eta irribarrez?

EIDER: Aupa, Mikel! Pozik nago, bai. Antzerki-talde batean hasi naiz eta oso ondo pasatzen dut. Hara noa orain. Nahi al duzu nirekin etorri?

MIKEL: Antzerkia? Ez, ez. Oso lotsatia naiz.

EIDER: Bada, lotsa galtzeko oso ona da antzerkia egitea. Jende ezberdina dago taldean. Begira, hemen daukat argazki bat:

Ezkerreko hau, Amaia da. Bera ere oso lotsatia da. Medikuntza-ikasketak egiten ari da.

MIKEL: Medikua izan nahi eta antzerkia egiten?

EIDER: Eta zergatik ez, bada. Beste hau, Jone da; zera... barrez ari dena. Arkitektoa da.

MIKEL: Aiba! Atzeko kaskagorri hori Oier da eta. Bizi al da alproja hori?

EIDER: Bai, bai, Oier da. Ezagutzen al duzu, bada?

MIKEL: Jakina! Nirekin ibili zen ikastolan.

EIDER: Bada, bromak egiten, artista da Oier! Ospitalean egiten du lan.

Eta, ilehoria, berriz, Maren da. Aktore ospetsua izatea da bere ametsa.

MIKEL: Eta zure ondoan dagoena? Zer dago, gurpil-aulkian?

EIDER: Bai, Uxue da. Hanka hautsi zuen kalean erorita, baina hala ere antzerkia egiten jarraitzen du.

Bueno, bada, animatu zaituzte! Zu ere taldean ikusi nahi zaitut!

MIKEL: Bueno, ondo da...

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

EZAUGARRIAK:

- A) Aktorea izan nahi du.
- B) Eiderren ondoan dago.
- C) Barrez ari da.
- D) Lotsatia da.
- E) Medikua izan nahi du.
- F) Ilegorria da.
- G) Oso ondo pasatzen du antzerkian.

| PERTSONA | EZAUGARRIA |
|----------|------------|
| Eider | G |
| Mikel | |
| Amaia | |
| Jone | |
| Oier | |
| Maren | |
| Uxue | |

ENTZUMENA

3. Xaboi naturala

Eider ikastaro batera doa xaboi naturala nola egin ikasteko. Bidean Jonekin egin du topo eta ikastaroari buruzko elkarrizketa bat izan dute.

EGITEKOA:

- Entzun “Xaboi naturala” elkarrizketa eta erantzun horren inguruko aukera anitzeko bost galderari.

PROZEDURA:

- Hiru minutu izango dituzu galderak eta erantzunak irakurtzeko.
- Bi aldiz entzungo duzu “Xaboi naturala” elkarrizketa.
- Amaieran, bost minutu izango dituzu galdera bakoitzari dagokion erantzun zuzena aukeratu eta taulara eramateko.

Transkripzioa:

XABOI NATURALA

JON: Eider! Baina nora zoaz korrika?

EIDER: Aiba Jon! Ez zaitut ikusi! Presaka nabil eta. Ikastaro batera noa xaboi naturala nola egin ikastera, eta hemendik hamar minutura hasiko da.

JON: Xaboi naturala nola egin? Erabilitako olioarekin egiten da, ezta?

EIDER: Bai, hala da.

JON: Eta, erraza al da xaboia egitea?

EIDER: Bada, ez dakit. Hiru orduko iraupena du ikastaroak. Kontatuko dizut amaitutakoan.

JON: Eta, osagaiak zuek eraman behar al dituzue?

EIDER: Ez, ez ditugu guk eraman behar. Olio, ur destilatua eta soda kaustikoa behar dira xaboia egiteko, baina arduradunek emango dizkigute beharrezko osagaiak eta tresnak.

JON: Soda kaustikoa ez al da arriskutsua?

EIDER: Bai, arriskutsua da. Hiru aholku eman dizkigute: xaboia aireztatua dagoen gela batean egitea, betaurrekoak eta eskularruak janzteia eta metalezko edukiontzi eta mahai-tresnak ez erabiltzea.

JON: Bada, segi bizkor, bestela ez zara iritsiko eta! Kontatuko didazu esperientzia!

EIDER: Bai, noski! Oparituko dizut nik egindako xaboia!

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

1. Zergatik doa korrika Eider?

- A. Osasuntsua delako.
- B. Ikastaroa berehala hasiko delako.
- C. Xaboa erosi behar duelako.

2. Zer ikasiko du ikastaroan?

- A. Xaboi naturala nola egin.
- B. Sukaldeko olioia nola egin.
- C. Erabilitako xaboa nola egin.

3. Zein iraupen du ikastaroak?

- A. 10 minutu.
- B. 3 ordu.
- C. 2 ordu.

4. Ze osagai erabiliko dituzte xaboa egiteko?

- A. Ur destilatua, soda kaustikoa eta sukaldeko xaboa.
- B. Sukaldeko olioia, metalezko tresnak eta ur destilatua.
- C. Soda kaustikoa, ur destilatua eta erabilitako olioia.

5. Zergatik jantzi behar dira betaurrekoak?

- A. Soda kaustikoa arriskutsua delako.
- B. Ur destilatuak begietan mina ematen duelako.
- C. Sukaldeko olioia begietan ez sartzeko.

IDATZI ERANTZUNAK

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

ENTZUMENA

4. Elkarrizketak

Bi pertsonen arteko bost elkarrizketa entzungo dituzu.

EGITEKOA:

- Entzun elkarrizketak eta erantzun aukera anitzeko galderei.

PROZEDURA:

- Bi minutu izango dituzu galderak irakurri eta irudiak begiratzeko.
- Bi aldiz entzungo duzu elkarrizketa bakoitza.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, aukeratu erantzun zuzena.
- Amaieran, minutu bat izango duzu erantzun zuzenak taulara eramateko.

Transkripzioak:

1. elkarrizketa

BEZEROA: Egun on, fruta pixka bat erostera nator.

DENDARIA: Berandu zabilta. Ia guztia saldu dut; sagarrak bakarrik geratzen zaizkit.

2. elkarrizketa

ZERBITZARIA: Eguerdi on. Zer nahi duzue bazkaltzeko? Arraina oso goxoa dago.

BEZEROA: Atzo jan nuen, ordea. Arroza jango dut gaur.

3. elkarrizketa

GIZONEZKOA: Egun on, Amaia. Joango al gara hondartzara?

EMAKUMEZKOA: Hondartzara? Euria ari du-eta!

4. Elkarrizketa

GIZONEZKOA: Zuk, aisialdian, zer egiten duzu?

EMAKUMEZKOA: Zinemara joaten naiz eta musika kontzertuetara ere bai, baina, batez ere, kirola egiten dut.

5. Elkarrizketa

SEMEA: Kaixo!

AMA: Berandu zatoz gaur ere! Badakizu, bada, zortzietan afaltzen dugula.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

1. elkarrizketa

GALDERA: Zein fruta geratzen zaio dendariari?



A



B



C



D

2. elkarrizketa

GALDERA: Zer jango du bezeroak?



A



B



C



D

3. elkarrizketa

GALDERA: Zer eguraldi egiten du?



A



B



C



D

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA


EBALUAZIO-JARDUERAK

4. Elkarrizketa


GALDERA: Zer da aisialdian gehien egiten duena?




A



B




C




D

5. Elkarrizketa

GALDERA: Zein ordutan afaltzen dute?




A



B



C



D

IDATZI ERANTZUNAK

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

ENTZUMENA

5. Bizkotxo errezeta

Mikelek, bere alaba Garaziren urtebetetzea dela-eta, bizkotxoa egin nahi du. Irina falta zaio eta bizilagunari eskatzea erabaki du.

EGITEKOA:

- Entzun elkarrizketa eta erantzun esaldiak egia ala gezurra diren.

PROZEDURA:

- Minutu bat izango duzu esaldiak irakurtzeko.
- Bi aldiz entzungo duzu entzungaia.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, bi minutu izango dituzu erantzun zuzenak taulara eramateko.

Transkripzioa:

Txirrin txirrin:

Ane: Kaixo, Mikel.

Mikel: Barkatu, Ane. Mesede bat eskatu nahi dizut. Garaziren lagunak etorriko dira arratsaldean eta bizkotxo bat egin nahi dut, baina ez daukat irinik. Emango al didazu pixka bat?

Ane: Bai, noski. Itxaron momentu bat, oraintxe ekarriko dizut. Zenbat behar duzu?

Mikel: Ez dakit, bada... edalontzi batekin egiten dut kalkulua. Hiru botatzen dizkiot.

Ane: Tori! Eraman zorro osoa, eta, beste ezer behar baduzu, eskatu lasai!

Mikel: Eskerrik asko, Ane. Txokolatezko bizkotxoa egiteko eskatu dit Garazik eta uste dut etxean dudala beharrezkoa den guztia: txokolatea, arrautzak, azukrea, gurina...

Ane: Bere urtebetetzea al da, bada?

Mikel: Bai, gaur bederatzi urte bete ditu eta ilusio handia egiten dio lagunekin ospatzeak.

Ane: Bederatzi urte dagoeneko? Zeinen azkar pasatzen den denbora! Emaiozu muxu handi bat nire partetik!

Mikel: Emango diot, bai. Eta orain banoa, berandutu egingo zait bestela. Eskerrik asko, berriro ere!

Ane: Ez horregatik! Ea goxoa ateratzen zaizun!

Mikel: Aspaldian ez dut bizkotxorik egin, baina saiatuko naiz! Kar-kar-kar!

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

| ESALDIA | EGIA | GEZURRA |
|--|------|---------|
| Mikelek askotan egiten ditu bizkotxoak. | | X |
| Bizkotxoa ospakizun baterako prestatu du. | | |
| Bizkotxoa Garazik eta bere lagunek jango dute. | | |
| Mikelek lortu du bizkotxoa egiteko behar zuena. | | |
| Mikelek Anerentzat ere egin du bizkotxoa. | | |
| Anek behar duena baino irin gehiago eman dio Mikeli. | | |

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

MINTZAMENA

Jarduerak hiru zati ditu eta binaka egingo duzue:

1. Norberaren aurkezpena irakasleari.
2. Gai bati buruzko elkarrizketa zure ikaskidearekin.
3. Argazki batean oinarritutako elkarrizketa zure ikaskidearekin.

EGITEKOA:

1. Aurkezpena. Bakoitzak, zeuen buruaren aurkezpen laburra egingo duzue irakaslearen aurrean. Bi minutu, bien artean.

- Nor zara?
 - Izen-abizenak, adina...
- Non bizi zara?
 - Herria, familia...
- Zer egiten duzu?
 - Lana, ikasketak...
- Nolakoa zara?
 - Itxura, izaera...

2. Elkarrizketa. Zure bikotekidearekin arituko zara. Irakasleak esango dizue nor hasiko den. Lau minutu, bien artean.

- **Gaia:** Larunbaterako plana
 - **Egoera:** Lagun batekin egin duzu topo kalean eta larunbatean hondartzara joatea pentsatu duzue. Plana egiteko, ordua eta lekua adostu beharko dituzue berarekin.

- Nora joan: Laga, Bakio, Itzurun, Zurriola, Ondarraitz...
- Nola joan: autobusez, oinez, autoz, trenez....
- Ordua: goizez, arratsaldez, ordua...
- Lekua: non geratu...

3. Elkarrizketa. Zure bikotekidearekin arituko zara. Irakasleak esango dizue nor hasiko den. Lau minutu, bien artean.

- **Gaia:** Ibilaldia eskolako haurrekin.
- **Egoera:** Eskolako irakasleak zarete. Datorren astean mendira zoazte umeekin, ibilaldi bat egitera. Eguna erabakitzeko, ordenagailu aurrean zaudete eguraldi-iragarpenari begira. Erabaki bion artean, eguraldian oinarriturik, zein egunetan egingo duzuen ibilaldia.

| ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|------------|-----------|------------|----------|----------|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

PROZEDURA:

- Zazpi minutu izango dituzu hiru jarduerak prestatzeko.
- Jarduerak, guztira, hamar minutu iraungo dute.

IRAKURMENA

Jarduerak bost zati ditu:

1. “Ikastolako oharra” irakurgaiari dagokiona.
2. “Etxebizitzak alokairuan” irakurgaiari dagokiona.
3. “Postala Alemaniatik” irakurgaiari dagokiona.
4. “Oharrak” irakurgaiari dagokiona.
5. “Kultur agenda” irakurgaiari dagokiona.

Guztira, 50 minutu izango dituzu guztiak egiteko.

IRAKURMENA

1. Ikastolako oharra

Maddi, Josebaren alaba, Erandio ikastolako ikaslea da. Ostiralean ibilaldia egingo dute ikasleek, eta horren berri emateko oharra bidali dute irakasleek. Irakurri Maddik aitari eman dion oharra.

EGITEKOA:

- Irakurri “Ikastolako oharra” testua eta erantzun horren inguruko aukera anitzeko bost galderei.

PROZEDURA:

- Irakurri arretaz testua, galderak eta erantzunak.
- Aukeratu erantzun zuzenak eta idatzi amaierako taulan.

ERANDIO IKASTOLA
ZUBEROA KALEA 14
20800 ZARAUTZ

Familia agurgarriak:

Ohar honen bidez adierazten dizuegu, ostiralean, otsailaren 20an, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleekin Bilboko Arte Ederretako Museora joango garela.

Bidaia autobusez egingo dugu. Egun osoko irteera da, eta ikasleek hamaiketakoa eta bazkaria eraman beharko dituzte.

Bidaiak 12€ balio du eta otsaileko kuotarekin batera kobratuko da.

Gogoratu: ostiralean ikastolako sarrera-irteera orduak ez dira aldatuko.

Besterik gabe, jaso gure agurra

Irakasleak

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

0. Bilboko Arte Ederretako Museora...

- A. trenean joango dira.
- B. oinez iritsiko dira.
- C. autobusez joango dira.

1. Hamaiketakoa eta bazkaria...

- A. 12,60€ ordainduko dute.
- B. ikasleek eraman beharko dituzte.
- C. oparitu egingo zaizkie.

2. Bidaiaren kostua...

- A. urtarrilean ordainduko da.
- B. hamahiru eurokoa izango da.
- C. otsaileko kuotarekin batera kobratuko da.

3. Ikastolako ordutegia...

- A. ez da aldatuko.
- B. ez da mantenduko.
- C. aldatu egingo da.

4. Oharra...

- A. ikastolako irakasleek izenpetu dute.
- B. Erandio ikastolako zuzendariak sinatu du.
- C. ikasleei zuzendua dago.

5. Erandio ikastola...

- A. Arte Ederretako kalean dago.
- B. Zarautzen dago.
- C. Bilbon dago.

IDATZI ERANTZUNAK

| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| C | | | | | |

IRAKURMENA

2. Etxebizitzak alokairuan

Alokairuan bizitzeko etxebizitza baten bila ari zara Donostian.

EGITEKOA:

- Irakurri “Etxebizitzak alokairuan” iragarkiak eta erantzun horren inguruko aukera anitzeko bost galderari.

PROZEDURA:

- Irakurri arretaz iragarkiak, galderak eta erantzunak.
- Aukeratu erantzun zuzenak eta idatzi amaierako taulan.

AMARA. Etxe berria. Bi logela, komun bat, egongela eta sukaldea ditu. Bigarren pisua. Ez du igogailurik. 600€ hilean.

GROS. Gela bakarreko apartamentua, altzariz hornitua. 4. solairuan. Igogailua du. Autobus-geltokitik gertu. 980€ hilean.

EGIA. Bi logela ditu, amerikar sukaldea eta komun bakarra. 750€ hilean.

ANTIGUA. Gela bat alokatzen dut 4 logelako pisu batean. Altzariz hornitua dago. Pisuak 80 m2 ditu. Oso argitsua da. Sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidea. Ez erretzaileentzat. 300€ hilean.

INTXAURRONDO. 3 logela, komun bat, egongela eta sukaldea. Terraza du. Ondo komunikatua. 950€ hilean.

BERIO. 800€ HILEAN. 90m2-ko etxebizitza. Oso argitsua. Bi logela, egongela, 2 komun eta garajea ditu. Ikastolaren eta kiroldegiaren ondoan dago.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

1. Non dago hiru logela dituen etxebizitza?

- A. Antigua auzoan.
- B. Gros auzoan.
- C. Intxaurrondo auzoan.

2. Non ezin daiteke erre?

- A. Gela bakarreko apartamentuan.
- B. Lau logela dituen etxebizitzan.
- C. Intxaurrondon dagoen etxebizitzan.

3. 80m²-ko etxebizitza zein solairutan dago?

- A. 1. solairuan.
- B. 4. solairuan.
- C. Ez du jartzen iragarkian.

4. Zein etxebizitzak ditu bi komun?

- A. Kiroldegiaren ondoan dagoenak.
- B. Amarakoak.
- C. Amerikar sukaldea duenak.

5. Zein da oso argitsua?

- A. Terraza duen etxebizitza.
- B. Antiguakoa.
- C. Antiguakoa eta Beriokoa.

IDATZI ERANTZUNAK

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

IRAKURMENA

3. Postala Alemaniatik

Karmelek Europan zehar bidaiatzeko asmoa du. Bisitaturiko estatu bakoitzetik postal bat bidaliko dio Andoniri. Hemen duzu Alemaniatik bidalitakoa.

EGITEKOA:

- Irakurri “Postala Alemaniatik” eta esaldiak.

PROZEDURA:

- Irakurri arretaz irakurgaia eta esaldiak.
- Irakurri esaldiak eta erantzun egia ala gezurra diren.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK



Kaixo, Andoni:

Iritsi naiz Alemaniara. Kolonian nago. Oso hiri
polita da. Postaleko argazkian agertzen dena
katedrala da. Ikusgarria benetan.

Hemen egongo naiz egun batzuetan, eta ondoren,

Berlinera joateko asmoa daukat. Gaur, garagardotegi

ospetsu batean afalduko dut, eta jarraian,

balet emanaldi bat ikustera joango naiz

Opernhaus Köln antzokira. Badakizu

zenbat gustatzen zaidan dantza!

Hurrengo postala Amsterdametik bidaliko dizut.

Besarkada bat!

Karmele

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

| ESALDIA | EGIA | GEZURRA |
|--|------|---------|
| Andoniri berriro idazteko asmoa dauka Karmelek. | | |
| Postaleko argazkian Berlineko katedrala agertzen da. | | |
| Etxean goiz afaldu eta dantza ikustera doa Karmele. | | |
| Karmeleri gustatu zaio Kolonia. | | |
| Opernhaus Köln antzokian dantza egingo du Karmelek. | | |
| Karmele Koloniatik zuzenean joango da Amsterdamera. | | |

IRAKURMENA

4. Oharrak

Enekok, bere egitekoak gogoratzeko, hozkailuan jarri dituen ohartxoak dituzu azpian.

EGITEKOA:

- Irakurri oharrak eta esaldiak. Lotu ohar bakoitza dagokion esaldiarekin. Hiru ohar sobera daude.

PROZEDURA:

- Irakurri oharrak eta esaldiak.
- Aukeratu esaldiei dagozkien oharrak eta idatzi oharraren letra esaldiaren ondoan.

A

*Amari deitu
zoriontzeko,
18:00etan.*

B

*Larunbatean,
30ean, Ken
Zazpiren
kontzertura.*

C

*Berlinerako
hegazkin-
txartela
imprimatu.*

D

*Ogia,
arrautzak
eta esnea
erosi.*

E

*Zinera
lagunekin
ostegunean,
20:00etan.*

F

*Lanera mezu
elektronikoa
bidali.*

G

*Asteburua
pasatzeko
maleta
prestatu.*

H

*Berlineko
gida-liburua
erosi.*

I

*Hotelean 2 gau
pasatzeko erreserba
egin.*

J

*Asteartean, Amaiarekin
korrika egitera.*

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

| ESALDIA | OHARRA |
|-------------------------------|--------|
| Amarekin hitz egin telefonoz. | A |
| Supermerkatura joan. | |
| Kirola egin. | |
| Film bat ikustera joan. | |
| Liburu-dendara joan. | |
| Lankideei idatzi. | |
| Musika entzutera joan. | |

IRAKURMENA

5. Kultur agenda

Asteburuan zer egin pentsatzen ari zara. Kultura-eskaintzak irakurri dituzu.

EGITEKOA:

- Irakurri kultura-eskaintzak eta erantzun horren inguruko aukera anitzeko bost galderei.

PROZEDURA:

- Irakurri kultura-eskaintzak, galderak eta erantzunak.
- Aukeratu erantzun zuzenak eta idatzi amaierako taulan.
- Zortzi minutu dituzu jarduera egiteko.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

| ANTZERKIA | ERAKUSKETA | ZINEMA | KONTZERTUA | BERTSOLARITZA |
|---|---|---|---|---|
| PUTINEN GUARDASOLA | ELÍAS, VIDA MÍA | AMAMA | MIKEL URDANGARIN | JULIO SOTO ETA IKER ZUBELDIA |
| XENTIMORIK GABE ANTZERKI TALDEAK aurkeztuko du bere obra dibertigarria. | Elías Querejeta ekoizlearen figuran eta obran oinarrituta dagoen erakusketa: zinemari eskainitako bizitzaren argazkiak. | Zuzendaria: Asier Altuna. Aktoreak: Iraia Elias, Kandido Uranga, Klara Badiola, Ander Lipus, Manu Uranga, Amparo Badiola, Nagore Aranburu. Iraupena: 103 minutu. Generoa: Drama. Herrialdea: Euskal Herria. | <i>Aspaldi ate-joka nuen taula ganean bakarrik aritzeko behar sakona. Nire gitarra eta nire ahotsa.</i> | Bi bertsolariek emango dute saioa. |
| LEKUA: GAZTESZENA (Donostia) | LEKUA: SAN TELMO MUSEOA (Donostia) | LEKUA: PRINCIPE ZINEMAK (Donostia) | LEKUA: Biteri Kultur Etxea (Hernani) | LEKUA: Frontoia (Legorreta) |
| EGUNA: 2016/10/23 ORDUA: 20:00 | EGUNA: 2016/10/01- 2016/10/31 ORDUTEGIA: Asteartetik igandera 10:00-20:00 | EGUNA: 2016/10/20 ORDUTEGIA: 17:00 20:00 22:15 | EGUNA: 2016/10/25 ORDUTEGIA: 22:00 | EGUNA: 2016/10/24 ORDUTEGIA: 20:00 |
| PREZIOA: 8 EURO | PREZIOA: DOHAINIK | PREZIOA: 6,80 EURO | SARRERA: 7 EURO | SARRERA: DOHAINIK |

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

1. Nora joango zara gitarraz lagundutako abestiak entzun nahi badituzu?

- A. Julio Sotoren kontzertura.
- B. Bertsolaritza saiora.
- C. Biteri Kultur Etxera.

2. Urriaren hogeian bakarrik duzu denbora zerbait egiteko, baina ez dituzu museoak atsegin. Nora joan zaitezke?

- A. "Putinen Guardasola" obra ikustera.
- B. Asier Altunaren filma ikustera.
- C. "Elias, vida mía" erakusketa ikustera.

3. Barre egin nahi baduzu, nora joango zara?

- A. San Telmo Museoko erakusketara.
- B. "Amama" filma ikustera.
- C. "Xentimorik gabe antzerki taldea"-ren obra ikustera.

4. Ez baduzu dirurik gastatu nahi, nora joango zara?

- A. Bertsolariak entzutera.
- B. Mikel Urdangarinen kontzertura.
- C. Donostian emango duten antzerki obra ikustera.

5. Ba al dago filmik Gasteszenan?

- A. Bai, urriaren 23an.
- B. Ez, antzezlan bat dago.
- C. Bai, arratsaldeko zazpietan.

IDATZI ERANTZUNAK

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |

IDAZMENA

Postala

Zure laguna, Maddi, atzerrian bizi da. Bere urtebetetze-eguna da, eta zoriondu egin nahi duzu.

EGITEKOA:

- Idatzi postala zure laguna zoriontzeko. Postalean, hasierako eta amaierako agurrak, postala idazteko arrazoia, data eta helbidea idatzi beharko dituzu.

PROZEDURA:

- Proba egiteko 20 minutu izango dituzu.
- Gutxienez, 30 hitz idatzi behar dituzu.

| | |
|--|--|
| | <div data-bbox="1023 1323 1347 1480" style="border: 1px solid black; width: 150px; height: 50px; margin-bottom: 10px;"></div> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> |
|--|--|

IDAZMENA

Izena emateko orria

Pilates ikastaroan izena emateko inprimakia bete behar duzu. Inprimaki behealdean, adierazi zein egun eta ordutan egin nahi duzun ikastaroa.

EGITEKOA:

- Bete inprimakia zure datuekin.

PROZEDURA:

- Bost minutu dituzu proba egiteko .

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

TAILER ETA IKASTAROAK/ IZEN EMATEKO ORRIA 2015-2016

DATU PERTSONALAK

Izena

1. abizena 2. abizena

Sexua Gizonezkoa Emakumezkoa N.A.:

Jaiotze-data: Urtea Hilabetea Eguna

Helbidea: Kalea Zb. Pisua Eskua

Herria: PK:

Tel.: Eskuko telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Eskatzaileraren egoera: langilea ikaslea langabetua besteak

Herrian erroldatuta nago: BAI EZ

ZEIN TAILER EDO IKASTAROTAN EMAN NAHI DUZU IZENA?

Ikastaro edo tailerraren izena:

.....
.....

Zein egun eta ordutan egin nahi duzu ikastaroa?

.....
.....
.....
.....

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

ERANTZUN-ORRIAK

ENTZUMENA

1. JARDUERA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| C | B | C | B | C |

2. JARDUERA

| PERTSONA | EZAUGARRIA |
|----------|------------|
| Eider | G |
| Mikel | D |
| Amaia | E |
| Jone | C |
| Oier | F |
| Maren | A |
| Uxue | B |

3. JARDUERA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| B | A | B | C | A |

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

4. JARDUERA

EBALUAZIO-JARDUERAK

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| A | C | A | C | C |

5. JARDUERA

| ESALDIA | EGIA | GEZURRA |
|--|------|---------|
| Mikelek askotan egiten ditu bizkotxoak. | | X |
| Bizkotxoa ospakizun baterako prestatu du. | X | |
| Bizkotxoa Garazik eta bere lagunek jango dute. | X | |
| Mikelek lortu du bizkotxoa egiteko behar zuena. | X | |
| Mikelek Anerentzat ere egin du bizkotxoa. | | X |
| Anek behar duena baino irin gehiago eman dio Mikeli. | X | |

IRAKURMENA

1. JARDUERA

| 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|---|
| C | B | C | A | A | B |

2. JARDUERA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
|---|---|---|---|---|
| C | B | C | A | C |

3. JARDUERA

| ESALDIA | EGIA | GEZURRA |
|--|------|---------|
| Andoniri berriro idazteko asmoa dauka Karmelek. | x | |
| Postaleko argazkian Berlineko katedrala agertzen da. | | x |
| Etxean goiz afaldu eta dantza ikustera doa Karmele. | | x |
| Karmeleri gustatu zaio Kolonia. | x | |
| Opernhaus Köln antzokian dantza egingo du Karmelek. | | x |
| Karmele Koloniatik zuzenean joango da Amsterdamera. | | x |

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

A1 MAILA

EBALUAZIO-JARDUERAK

4. JARDUERA

| ESALDIA | OHARRA |
|-------------------------------|----------|
| Amarekin hitz egin telefonoz. | A |
| Supermerkatura joan. | D |
| Kirola egin. | J |
| Film bat ikustera joan. | E |
| Liburu-dendara joan. | H |
| Lankideei idatzi. | F |
| Musika entzutera joan. | B |

5. JARDUERA

| | | | | |
|----------|----------|----------|----------|----------|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| C | B | C | A | B |